



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2
EGUNA: 2021/03/04
HASIERA ORDUA: 19:04
AMAIERA ORDUA: 20:01
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa.

Nº: 2
DÍA: 04/03/2021
HORA DE INCIO:19:04
HORA DE FINALIZACIÓN: 20:01
LUGAR: Salón Plenos del Ayuntamiento

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain
Aritz Larrañaga Unanue
Antxon Etxeberria Larrea
Nerea Arrizabalaga Badiola
Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola
Isidor Lamariano Arostegi
Ane Egidazu Elosua
Enrique Salgado Alcorta

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambronero Alkorta
Eneritz Gomez Lázaro
Miren Esnal Laskibar

Jorge González Endemaño (Idazkaria)

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar Beristain
Aritz Larrañaga Unanue
Antxon Etxeberria Larrea
Nerea Arrizabalaga Badiola
Antxoka Elorza Altuna

Grupo Municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea Loiola
Isidor Lamariano Arostegi
Ane Egidazu Elosua
Enrique Salgado Alcorta

Grupo Municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambronero Alkorta
Eneritz Gomez Lázaro
Miren Esnal Laskibar

Jorge González Endemaño (Secretario)



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1. COVID-19 KUTSATZEKO EDO HEDATZEKO PREBENTZIO NEURRI GISA HONAKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO: OSOKO BILKURA HAU ATEAK ITXITA EGITEA

Gilen: Prensaren partetik bi eskaera izan ditugu; beraz, bilkura atek itxita egitea proposatzen da, baina komunikazio zerbitzuekin.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du bi pertsona horien parte-hartzea, eta bi kazetari bertan egotea.

2. AURREKO BILKURARI (2020/12/17) DAGOKION AKTA ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du 2020/11/26ko bilkurari dagokion akta zirriborroa.

3. ALKATEAREN DEKRETUAREN KONTROLA

Pedro: 17. Dekretua, harrera-etxean sartzeko baimena, zer esan nahi du?

Aritz: Daukagun etxean sartzeko behar bat sortu zen, eta hori horren prozedura da.

Pedro: 38 Dekretua, Idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak betetzeko.

Aritz: Sei hilero egin behar den prozedura bat da.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

1. APROBAR, SI PROCEDE, CELEBRAR ESTA SESIÓN DE PLENO A PUERTA CERRADA, COMO MEDIDA DE PREVENCIÓN DEL CONTAGIO O PROPAGACIÓN DEL COVID-19.

Gilen: Hemos tenido dos peticiones de asistencia por parte de dos medios de comunicación, por lo que se propone celebrar el pleno a puerta cerrada, si bien con servicios de comunicación.

El pleno acuerda por unanimidad celebrar la sesión a puerta cerrada, y la presencia de dos personas de sendos medios de comunicación.

2. APROBAR, SI PROCEDE, EL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (17/12/2020)

Se aprueba por unanimidad el borrador de acta correspondiente a la sesión del 26/11/2020.

3. CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE

Pedro: El Decreto 17. ¿Qué quiere decir, autorizar la entrada a la casa de acogida?

Aritz: Surgió la necesidad de entrar en la casa que tenemos, y este es el procedimiento.

Pedro: También el Decreto 38, para la provisión de los puestos de Secretario e interventor.

Aritz: Es un procedimiento que tenemos que cumplirlo cada seis meses.



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

4. VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO 2021EKO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATEAREN DEKRETIEN KONTROLA

Gilen: Aurreko osoko bilkuran adostu zen. Lehen urtean behin kontrolatzen ziren, baina orain tarteka, multzoka, egitea adostu zen. Hauek aurtengo lehenengo taldea da.

4. CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2021

Gilen: Se acordó hacerlo en el último pleno. Antes se controlaban una vez al año, pero se acordó hacerlo en grupos. Este es el primer grupo de este año.

5. 1. KREDITU-ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Itziar: Aurreko astean Ogasun Batzordea egin zen. Bi gai dauzkagu, alde batetik, aparejadore eta TAG batentzat aurreikusi beharreko dirukopurua, eta, bestetik, aparkatzeko sistema berriarekin matrikulak irakurtzeko, partida falta zen. Bi gastu horientzako 56.000€ko kreditu-aldaketa egitea proposatzen da.

Pedro: Aparejadore zerbait aldatzen da? Kontuan hartzeko esaten dut.

Aritz: Printzipioz aldatu ez; kontratazioa egin beharko da.

Itziar: Orain baja hori ez dugu kubritu behar.

Udalbatzak aho batez onartzen du 1. kreditu-aldaketa.

5.- APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE CREDITOS Nº 1

Itziar: La Comisión de Hacienda se celebró la semana pasada. Tenemos dos temas: Hacer una previsión económica para un aparejador y un TAG, y por otra parte, nos falta una partida para el sistema de lectura de matrículas del nuevo sistema de aparcamiento. Proponemos una modificación de créditos de 56.000€.

Pedro: ¿Cambia algo con el aparejador? Lo digo para tenerlo en cuenta.

Aritz: En principio no; habrá que hacer un contrato.

Itziar: No tenemos que cubrir esa baja.

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de créditos nº 1.

6.- EUDELEK PROPOSATUTAKO UDALEKO ETA DEBA MUSIKAL PATRONATUKO LANGILEEN SOLDATA IGOERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Aritz: Barne Erregimeneko irizpena dugu.

6.- APROBAR, SI PROCEDE, EL INCREMENTO SALARIAL DE LOS TRABAJADORES DEL AYUNTAMIENTO Y DEL PATRONATO DEBA MUSIKAL PROPUESTO POR EUDEL

Aritz: Tenemos una valoración de Régimen



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

Proposamena onartu genuen, eta orain, onartzea izango litzateke.

Interior. Se aceptó la propuesta; ahora nos corresponde aceptarla.

Udalbatzak aho batez onartzen du EUDELe proposatutako Udaleko eta Deba Musikal Patronatuko langileen soldata iguera.

El Pleno aprueba por unanimidad el incremento salarial de los trabajadores del Ayuntamiento y del Patronato Deba Musikal propuesto por EUDEL.

7. APARKALEKUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA (TAO) ETA 2021EKO ORDENATZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

7. APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DE APARCAMIENTOS (OTA) Y DE LAS ORDENANZAS FISCALES DE 2021

Itziar: 2021eko Ordenantza fiskalak urrian onartu ziren, baina Abenduan eta Urtarrila bitartean aparkalekuen antolaketa landu denez, aldaketa gutxi batzuk ditugu egin beharrekoak.

Itziar: Las Ordenanzas Fiscales del 2021 se aprobaron en octubre, pero como entre diciembre y enero se ha trabajado en la ordenación de los aparcamientos, tenemos que hacer unos pequeños cambios.

Udalbatzak aho batez onartzen du aparkalekuen ordenantzaren aldaketa (TAO) eta 2021eko ordenantza fiskalak.

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de la ordenanza de aparcamientos (OTA) y de las ordenanzas fiscales de 2021.

8. LOKALAK ETXEBITZA BIHUR-TZEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

8. APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DE TRANSFORMACIÓN DE LOCALES EN VIVIENDA

Gilen: Duela gutxi Hirigintza Batzordean landu zen, eta bertan eskaera baten harira, aztertu zen zentzuzkoa dela. Ez badago ekarpenik, bozkatu egingo dugu.

Gilen: Hace poco se trató en la Comisión de Urbanismo, donde a raíz de una petición se comentó que era razonable. Si no hay aportaciones votaremos.

Udalbatzak aho batez onartzen du lokalak etxebitza bihurtzeko ordenantzaren aldaketa.

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de la ordenanza de transformación de locales en vivienda.

9.- DEBAKO UDALERRIAN, BAINA ITZIARKO AUZO UDALAREN LUR EREMUTIK KANPO, ERAGINA IZANGO DUTEN KULTUR PROGRAMAK EDO JARDUERAK ANTOLATZEN

9.- APROBAR, SI PROCEDE, LAS BASES PARA LA ADJUDICACIÓN DE SUBVENCIONES A LAS ASOCIACIONES Y PERSONAS FÍSICAS SIN ÁNIMO DE LUCRO LOCALES QUE ORGANICEN



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

DITUZTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO HERRIKO ELKARTEEI ETA PERTSONA FISIKOEI DIRU-LAGUNTZAK ESLEITZEKO OINA-RRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

PROGRAMAS O ACTIVIDADES CULTURALES QUE TENGAN INCIDENCIA EN EL MUNICIPIO DE DEBA, PERO FUERA DEL ÁMBITO TERRITORIAL DE ITZIARKO AUZO-UDALA

Aritz: Tokiko Gobernuan aipatu dugu, baina puntua sartuta zegoen eta oinarriak ere deialdia egiterakoan bideratu zen, kultura batzordeko irizpenak ere hor daude. Izango litzake oinarriak gaur onartzea eta urtean zehar egiten diren ekintzak diruz laguntzea.

Aritz: Lo hemos comentado en la Junta de Gobierno Local, pero el punto estaba incluido en la convocatoria, y las bases también se encauzaron en la convocatoria; también están los dictámenes de la comisión de cultura. Sería aprobar hoy las bases y subvencionar las actividades que se realicen a lo largo del año.

Udalbatzak aho batez onartzen du Debako udalerrian, baina Itziarko Auzo-Udalaren lur eremutik kanpo, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak esleitzeko oinarriak.

El Pleno aprueba por unanimidad las bases para la adjudicación de subvenciones a las asociaciones y personas físicas sin ánimo de lucro locales, que organicen programas o actividades culturales que tengan incidencia en el municipio de Deba, pero fuera del ámbito territorial de Itziarko Auzo-Udala.

10. MUTRIKUKO KASETA BELTZAN URKIROI INSTALAZIOA ERAIKITZEKO KOSTAS ZERBITZUAK EZARRITAKO KONTSEZIO-BALDINTZA BERRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

10. APROBAR, SI PROCEDE, LAS NUEVAS CONDICIONES DE CONCESIÓN ESTABLECIDAS POR EL SERVICIO DE COSTAS PARA LA EDIFICACIÓN DE UNA INSTALACIÓN DEPORTIVA ACUÁTICA EN LA CASETA NEGRA (T.M. DE MUTRIKU)

Gilen: Hori ere batzordean landu zen. Baldintzak ikusita, onartzea zentzugabekoa ikusten genuen. Kasu honetan aldeko bozkak Kostasek ipinitako baldintzak onartzea izango litzateke; eta kontrako bozkak, ez onartzea.

Gilen: Este punto también se trató en la comisión. Viendo las condiciones, nos parecía absurdo aceptarlas. En esta ocasión, el voto favorable sería aceptar las condiciones impuestas por Costas, y el voto en contra sería no aceptarlas.

Enrique: Pena da proiektua ezin garatu ahal izatea. Baina batez ere, aipatu nahi dugu Deban uretako kirola ez ahaztea eta beste aukera bat bilatzen saiatzea.

Enrique: Es una pena que no se pueda desarrollar el proyecto. Pero queremos hacer una mención para que no quede en el olvido el deporte acuático en Deba, y para que intentemos buscar otra opción.



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

Antxon: Kostasekin askotan hitz egin dugu eta gure asmoa zerbait egitea da; landuko dugu.

Antxon: Hemos hablado varias veces con Costas. Nuestra intención es hacer algo; trabajaremos en ello.

Iñigo: Antxonek eta Enriquek diotenarekin bat nator. Kirol Batzordean eztabaidatu dugu; Debak baditu aukerak: portua, estuarioa eta abar, eta irtenbidea bilatu behar da.

Iñigo: Coincido con lo que dicen Antxon y Enrique. Estuvimos debatiendo en la Comisión de Deportes. Deba tiene posibilidades: tenemos puerto, estuario etc. Y hay que buscar la solución.

Gilen: Gure borondatea ere hori da. Aukera desberdinak azertu ditugu, egin genuen bilera bat Puertosekin, eta egia da landu beharreko gaia dela. Inbertsiorik egiteko aukera ezean, luzera mantenduko den egoera da.

Gilen: Esa es nuestra voluntad. Hemos analizado las diferentes opciones, nos reunimos con Puertos, y es cierto que es un tema que hay que trabajarlo. Al no tener posibilidades de inversión, es una situación que se mantendrá a la larga.

Antxon dabil arduradun gai honekin. Ingurumen natural horrek dituen baldintzen barruan kontuan izan behar da elkarbizitza natura, animalien eta gizakien artean. Ez dut ezer aurreratu nahi, baina aukerak badaude; ea hurrengo hilabetetan proiektu batekin akordio batera iristen garen Puertos eta Eusko Jaurlaritzarekin.

Antxon está a cargo de este tema. Dentro de las condiciones de este medio natural debe tenerse en cuenta la convivencia entre naturaleza, animales y seres humanos. No quiero avanzar nada, pero hay posibilidades. A ver si en los próximos meses llegamos a un acuerdo con Puertos y el Gobierno Vasco.

Udalbatzak aho batez **ukatzen** du Mutrikuko Kaseta Beltzan Ur-kirol instalazioa eraikitzeo Kostas Zerbitzuak ezarritako kontsezio-baldintza berriak.

El Pleno **rechaza** por unanimidad las nuevas condiciones de concesión establecidas por el Servicio de Costas para la edificación de una instalación deportiva acuática en la Caseta Negra (T.M. de Mutriku).

11. HILERRI BERRIKO LIKIDAZIOA ONARTZEA HALA BADAGOKIO

Gilen: Gai honekin gorabehera desberdinak izan ditugu Hirigintza Batzordean, eta baita Osoko Bilkuran landu ditugunak ere. Azkenik, obra zuzendaritzaren likidazioa daukagu, guk ontzat ematen duguna. Hau onartzeak ekarriko luke azpiegitura hori gurea izatea. Pauso garrantzitsua da hitz egin dugun

11. APROBAR, SI PROCEDE, LA LIQUIDACIÓN DEL NUEVO CEMENTERIO

Gilen: Con este tema hemos tenido diversas incidencias que las hemos trabajado en Urbanismo e incluso en el Pleno. Por último, tenemos la liquidación de la dirección de obra que nosotros damos por buena. Aceptar esto supone que esta infraestructura pasa a ser nuestra. Es un paso importante, por todo lo que



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

guztiagatik.

ya hemos hablado.

Iñigo: Ondo legoke adieraztea zer adostasun maila dagoen obra-zuzendaritza eta exekuzioaren artean zegoen auzian. Guk likidazioaren alde egingo dugu, baina publiko egin behar dugu jendeak jakin dezan.

Iñigo: Estaría bien señalar en qué punto estamos a nivel de acuerdo entre el litigio que había entre la dirección de obra y la ejecución. Nosotros vamos a apoyar la liquidación, pero simplemente hacerlo público y que la gente lo sepa.

Gilen: Egoera batzordeetan eta osoko bilkuretan aipatu izan da; Obra-Zuzendaritzak kalkulu batzuk egin ditu eta obra exekutatu dutenek beste irakurketa bat egiten dute. Atzetik datorren gaia da. Udal-arkitektoak, Idazkariak ete nik neuk lan itzela egin dugu bitartekari lanetan. Gure bitartekari-lanak ez du fruitu handirik eman, azken finean, bi partikularren arteko gatazka delako. Obra-Zuzendaritza udalak kontratatu zuen, eta obra exekutatzeke beste enpresa bat adostu zen plenoan. Bi kontratazio dira, eta beraien arteko gatazka bat izan da, denbora guzti honetan. Guri dagokiguna Obra-Zuzendaritza da, konfiantza osoan kontratatu baikenuen, baldintza zehatz batzuekin. Horregatik, hori onartzea dagokigu, eta ez aztertzea beste balorazio batzuk; hori, kasurik okerreanean, epaile bati legokioke, gatazkak jarraituko balu.

Gilen: Ha sido lo comentado en los plenos y comisiones; la dirección de obra ha hecho unos cálculos y quienes han ejecutado la obra hacen otra lectura. Es un tema que viene de atrás. El arquitecto municipal, secretario y yo mismo hemos realizado una importante labor de mediación, aunque no ha dado grandes frutos, ya que se trata de un conflicto entre dos particulares. La dirección de obra la contrató el Ayuntamiento, y para su ejecución, en el pleno se acordó una empresa. Son dos contrataciones y ha habido un conflicto entre ambas durante todo este tiempo. En lo que a nosotros respecta lo más importante es la Dirección de Obra, ya que se ha contratado de plena confianza, con unas condiciones concretas. Por ello, nos corresponde aceptarlo, y no analizar otras valoraciones, que en el peor de los casos, le corresponde a un juez si persistiera el conflicto.

Udalbatzak aho batez onartzen du hilerri berriko likidazioa.

El Pleno aprueba por unanimidad la liquidación del nuevo cementerio.

12. ARTZABALGO HILERRIAREN ARAUBIDEA ETA FUNTZIONAMENDUA EZARTZEN DUEN ERREGELAMENDUA ONARTzea, HALA BADAGOKIO

12.- APROBAR, SI PROCEDE, EL REGLAMENTO QUE REGULA EL RÉGIMEN Y FUNCIONAMIENTO DEL CEMENTERIO DE ARTZABAL

Gilen: Kasu horretan Antxoka da batzordeburua. Aurreko aztergaia onartu ondoren, hori izango litzateke: hilerri horren araudia onartzea, eta sistema hori martxan jartzea bere funtzio guztiekin; proiektuak

Gilen: En este caso, el responsable de la comisión es Antxoka. Una vez aprobado el punto anterior, esto sería la aprobación de la normativa de dicho cementerio y su puesta en marcha con todas las funciones previstas en su proyecto. Abrirlo, comenzar a utilizarlo, para



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

aurreikusi zituen funtzio guztiak. Publikoari ireki, eta erabiltzen hasi,; ondoren, hilerri zaharra itxi, beste lanekin hasteko. Hor daukagu obra eta zerbitzuetako irizpena.

Antxoka: Aipatzea zelan izan diren pausoak. Duela urtebete hasi ginen lanean Debako hilerriko erregelamendua lantzen. Erregelamendu berria da, hilerri berria delako, eta ezaugarri bereziak dituelako. Lanketa horrekin hasi ginenean, kontsultatu genuen beste herri batzuekin konparatzeko errealitatea zein den, eta ondoren, gure herrirako egokitzapenak egiteko. Prozesu guztia burutu da; hilerrian ibiltzen diren langileekin ere kontrastatu da, eta hau izango litzateke prozesu guztiaren emaitza.

Pedro: Guk batzordean onartu genuen, eta orain ere onartuko dugu.

Iñigo: Guk badugu desadostasunen bat. Uste dugu zirriborroaren partehartze-publiko prozesua apur bat pobrea izan dela. Sailen kasuan, exekuzioa oso positiboa da, ekarpen asko egin dira, baina joan den astean argitaratu zen.

Antxoka: Abenduaren 15 inguruan publiko egin zen, jendaurrean bost aste egon zen, legalki eskatzen duena. Egon ginen itxoiaren ea helegiterik zegoen. Urte guztiaren zehar Zerbitzuetako Batzordean egon da, zuek ere denbora izan duzue gaia lantzeko. Aurreko astean bai egin da lanketa sakonagoa, bakoitzak zeuzkan aportazioak hitz egiteko, eta hori izan da azken prozesua, ordenantza guztiekin egiten den bezala.

Iñigo: Guk faltan botatzen dugu Erregelamendua publiko egin den fasea; Debako herriak dituen ekarpenak eta eskaerak jasotzeko fase hori. Gure ikuspuntutik, gabezia

posteriormente proceder al cierre del antiguo y comenzar con el resto de trabajos. Tenemos un dictamen de obras y servicios.

Antxoka: Comentar los pasos que se han dado. Hace un año empezamos a trabajar en el reglamento del cementerio de Deba. Es un reglamento nuevo, ya que se trata de un cementerio nuevo, con características especiales. Consultamos con otros pueblos para para comparar cuál es la realidad, y después adaptarlo a nuestro pueblo. Se ha realizado todo el proceso; también se ha contrastado con el personal que trabaja en el cementerio, y éste sería el resultado final de todo el proceso.

Pedro: Nosotros lo aprobamos en la comisión y ahora también lo haremos.

Iñigo: Nosotros tenemos alguna diferencia. Creemos que el proceso de participación pública de este borrador ha sido un poco pobre. En el caso de los departamentos vemos muy positiva la ejecución, ha habido muchas aportaciones, pero se ha hecho público la semana pasada.

Antxoka: Se publicó sobre el 15 de diciembre y estuvo en exposición cinco semanas, lo legalmente exigido; estuvimos esperando a ver si había recursos. Durante todo el año ha estado en la Comisión de Servicios y habéis tenido tiempo para trabajarlo. La semana pasada se ha trabajado más profundamente para comentar las aportaciones de cada uno, y ese ha sido el último paso; como se hace con todas las ordenanzas.

Iñigo: Nosotros echamos en falta esa fase de hacer público el Reglamento y recibir las aportaciones y solicitudes que tiene el pueblo de Deba. Desde nuestro punto de vista tiene



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

batzuk ditu. Hileta-logistika kontrolatzen duten enprekin jarri gara harremanetan, eta osasungarritasunik ezarena islatuta utzi behar da. Ez dakit alegazioen prozedura egokia den edo partaidetza prozesu batean pentsa genezakeen, aparkalekuekin egin den bezala. Ikusten dugu Amillagatik egingo den lekualdaketa ez dagoela garatuta; 10 urte bete ondoren, hondakinak kontserbatzeko aukerarik ez dago, eta abar. Gure ustez, herrian kezka dago; ez dakit ondo kudeatzen ari garen, eta araudi horretan txertatzeko gai izango garen. Horregatik, gure botoa ez da Erregelamenduaren aldekoa izango.

Antxoka: Hasieran esaten nuen bezala, Erregelamendu hori aurreko legegintzaldian diseinatu zen. Hilerri berriaren beharrei erantzuna emango dion Erregelamendua da. Erregelamendu horrek eskatzen du martxan jartzea Deban onartu zen hilerri-proiektua; beste gauza bat da hilerri zaharraren itxiera eta fasearen itxiera.

Gilen: Matizazio gisa, hemen gauden beste batzuk ere konpartitzen dugu zuen ezinegona gai batzuen inguruan. Gai oso sensiblea da, eta eredu aldaketa dakar. Proiektuak eredu aldaketa zekarren, hortaz arreta jarri behar dugu ea nola eta zertarako diseinatzen diren gauzak, zer beharrei erantzuten dien eta abar. Hori proiektuan kontenplatu da.

Nire esperientzia pertsonaletik, gobernuan eta alkatez sartu ginenetik hirurok egon gara hirigintzan: Pedro, Iñigo eta ni. Lanketa hori guztia gauza berria izan da niretzako, eta lehendabiziko astearte horiek, Hirigintza Batzordea egiten ziren, niretzat maratonianoak ziren, hirigintzaren zentzua

algunas carencias. Nos hemos puesto en contacto con empresas que controlan la logística funeraria, y hay un punto en concreto, el de la insalubridad, que hay que dejar reflejado. No sé si el procedimiento de alegaciones es el indicado o se podría pensar en un proceso de participación como ya se ha hecho con los aparcamientos. Vemos que el traslado desde Amillaga no está desarrollado, no se contempla ninguna opción de conservación de restos después de los 10 años, etc. Creemos que hay una inquietud en el pueblo que no sé si lo estamos gestionando bien, y si vamos a ser capaces de trasladarlo a este reglamento. Por ello, nuestro voto no va ser favorable al Reglamento.

Antxoka: Como decía al principio, este Reglamento da respuesta al nuevo cementerio que se diseñó en la anterior legislatura. Este Reglamento exige la puesta en marcha del proyecto aprobado en Deba; otra cosa es el cierre del antiguo cementerio y el cierre de la fase.

Gilen: Como matización, vuestra desazón respecto a algunos temas la compartimos varios de los aquí reunidos; se trata de un tema muy sensible y supone un cambio de modelo. Es un cambio que traía consigo el proyecto, es por eso que debemos prestar atención a cómo y a para qué están diseñadas las cosas, si responde a las necesidades, etc. Esto se contempla en el proyecto.

Desde mi experiencia personal, desde que entramos en el gobierno y en la alcaldía, hemos estado los tres en urbanismo: Pedro, Iñigo y yo. Todo ese trabajo ha sido algo nuevo para mí y aquellos primeros martes, en los que se celebraba la comisión de urbanismo, para mí fueron maratonianos para poder entender el



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

ulertzeko, eta proiektu horren zentzua ere bai. Gogoratzen dut hasieratik komentatzen zela lekualdaketak zekarrena. Nire ustez nahastu ditugu erregelamendua eta lekualdaketa. Erregelamenduak ekipamendu horren arauak finkatzen ditu. Hori diseinatzerakoan kontuan izan behar genuen zer behar egon zitezkeen edo dauden. Zer aldaketa dakartzan hilerri berri horren funtzionamenduak. Ez dut uste araudiaren arazoa denik, baizik eta nola lantzen den lekualdaketa hori, hilerri zaharraren itxierarekin lotuta. Egungo hilerri zaharraren araudiak jarraituko du arautzen Itziarko hilerria, baina kontziente izan behar gara edukiak kontuan hartu behar zirela proiektua bera diseinatzerakoan. Orain azpiegitura hori daukagu, eta daukaguna kontuan harturik, planteatzen ari den eztabaidari heldu behar zaio, eta ez dut uste araudiari lotuta dagoenik.

Iñigo: Obra eta zerbitzuen batzordean zalantzak sortzen dituzten puntu batzuk daude; alde batzuk leundu gabe daude, adibidez, lurperatzea Debakoa ez dena. Horregatik diot interesgarria litzatekeela jendearen kezka jasotzea; badakit kezka daudela. Ehorztetxeok diote gai horrekin nahasmen handia dugula. Gogoratzen dut hirigintzako batzorderen batean, gorpuzki horiek biltzeko irtenbide bat aztertu zuela: maletatxo batzuk.

Aldeko botoa ez ematea atzeratzeko hilerria martxan jartzea, baizik eta sortuko diren kezka horiek jasotzeko; horiei irtenbidea eman beharko baitzaie. Beharbada, proiektua dagoen bezala mantendu behar da, baina hemendik hamar urtera denbora dugu kezka edo behar horiek hausnartzeko, eta jendearen ekarpenetara egokitzeko proiektu hori. Horregatik ezin dugu aldeko botorik eman.

sentido del urbanismo y el sentido de este proyecto. Desde el principio se comentaba lo que implicaba el traslado. Creo que hemos confundido el reglamento con el traslado. El reglamento establece las normas de este equipamiento. A la hora de diseñar había que haber tenido en cuenta las necesidades que podrían surgir o las existentes. El funcionamiento de este nuevo cementerio presenta cambios. No creo que sea un problema de normativa, sino de cómo se trabaja ese traslado, ligado al cierre del antiguo cementerio. La normativa del actual cementerio seguirá regulando el cementerio de Itziar, pero hay que tener en cuenta qué capacidades debían haberse tenido en cuenta a la hora de diseñar el proyecto. Tenemos la infraestructura, y teniendo en cuenta lo que tenemos, hay que abordar el debate que se está planteando, que no creo que esté relacionado con la normativa.

Iñigo: En la Comisión de obras y servicios hay unos puntos que generan dudas, hay aspectos que no están pulidos, por ejemplo, enterrar gente que no es de Deba. Por eso digo que sería interesante recoger las inquietudes de la gente; sé que hay inquietudes. Los de la funeraria dicen que tenemos un lío fuerte con ese tema. El proyecto contemplaba no individualizar. En alguna Comisión de Urbanismo recuerdo que se contempló una solución para recoger esos restos: unos maletines.

El no votar a favor no es por retrasar la puesta en marcha, sino por recoger esas inquietudes que van a surgir, y a las que habrá que darles una solución. Igual hay que mantener el proyecto tal y como está, pero de aquí a diez años tenemos tiempo para contemplar esas inquietudes o necesidades y adaptar ese proyecto a lo que la gente nos pueda aportar. Por esto no podemos dar un voto favorable.



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

Pedro: Uste dut nahasten ari garela. Guk hilerri berriaren proiektua onartu genuenean, proiektu horrek zituen ezaugarri batzuk bestearekin zerikusirik ez zutenak. Proiektua publiko egin zen, eta hitzaldi bat egon zen. Baliteke jendea jakinaren gainean ez egotea, baina hilerriak ezaugarri zehatz batzuk zituen. Uste dut Ezaugarri horietarako egokia den erregelamendua behar dugula. Egia da lekualdaketaren gaiak arazo sentimentalak eta erlijiosoak sortzen dituela, eta inoiz ez dugu ahaztu ondorio batzuk ekarriko dizkigula, baina hori hurrengo urratsa da. Lehenengo urratsa erregelamendua onartzea da; hurrengoa, hilerria nola ixten dugun eta toki hori nola estaltzen dugun ikustea.

Isidor: Ez da lekualdatzen den lehenengo hilerria, eta ez da azkena izango. Arazoak sortuko dira, eta konponduko ditugu.

Iñigo: Egia da, baina erregelamenduan hainbat gabezia atzeman dira.

Isidor: Hori usadioak dira, baina egin behar da.

Iñigo: Zuek esan duzue ordenantza horretan aldaketa batzuk egin daitezkeela. Baina erregelamendua onartuko da zuek azaldu dituzuen aldaketa horiek sartu gabe. Uste dut arazo bat dugula, agian proiektuaren kontzeptua da, nik ez dut esaten erregelamendua denik. Uste dut aurrea har diezaiokegula, eta partehartzea erabili gauzak arinago joateko. Horietako asko sentimenduak dira, eta horiek arrazoiarekin ezin dira ulertu.

Gilen: Gaia ixteko, uste dut posturak oso garbi geratu direla. Eskertzen dut zeuk esatea

Pedro: Creo que estamos mezclando. Cuando nosotros aprobamos el proyecto del nuevo cementerio, ese proyecto tenía una serie de características que no tenían nada que ver con el otro. El proyecto se hizo público y hubo una charla a la que acudió la gente. Puede que haya gente que no esté informada, pero el cementerio tenía unas características determinadas. Creo que hay que poner un reglamento para esas características. Es cierto que el tema del traslado genera una serie de problemas sentimentales y religiosos que nunca hemos obviado que nos iba a traer una serie de consecuencias, pero ese es el siguiente paso. El primer paso es aprobar el reglamento, el siguiente es ver cómo cerramos el cementerio, y cómo cubrimos ese espacio.

Isidor: No es el primer cementerio que se traslada ni será el último. Surgirán una serie de problemas que iremos solucionando.

Iñigo: Es cierto, pero se han detectado una serie de carencias en el reglamento.

Isidor: Eso son usos y costumbres, pero hay que hacerlo.

Iñigo: Vosotros mismos habéis declarado que hay una serie de modificaciones que se podrían acometer en ese reglamento. Pero lo que se va a aprobar es el reglamento sin esas modificaciones que vosotros habéis expuesto. Creo que tenemos un problema, igual es el concepto del proyecto, yo no digo que el reglamento. Creo que podemos adelantarnos, y mediante la participación, hacer que las cosas vayan más ligeras. Muchos de ellos son sentimientos y estos no se pueden entender con el razonamiento.

Gilen: Para cerrar el tema, pienso que han quedado muy claras las posturas. Agradezco que



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

ordenantzarekin zer ikusirik ez duela, hori ez baita araubidea. Bozkatu aurretik irakurriko dizuet Batzordeko irizpenaren azken aurreko paragrafoa: *“Batzordeko kideek, aho batez ordenantzari oniritzia ematea adosten dute bere onespenerako. EAJ-PNVko Mirenek hezurtegi banakako edo familiako errautsak banaka, bakoitza bere gunean, sartzeko aukera izan dezatela eskatu du; eta Debarren Ahotsako Isidorek, hezurtegia, abian baldin badago, argitzeko ea Mutriku aldeko baserriek eskubidea izango duten hilerri berria hobiratzeko.*

Aipatu den guztiarekin, eta ordenantza guztiekin bezala, sortzen diren beharren arabera eguneratuko dira. Oso pauso garrantzitsua da erregelamendu hori onartu ahal izatea, lehendabiziko aurrerapausoa eman ahal izateko. Ondoren, behar diren moldaketa guztiekin jarraituko dugu, eta batez ere, lekualdaketa, eta sortu daitezkeen arazo guztiak. Ados nago, galdetu egin behar da, baina lekualdaketa prozedura teknikoa da. Argi dago zeintzuk diren posturak.

Aldeko bozkak: 10 (EH Bildu eta DA)
Aurkako bozkak: 3 (EAJ-PNV)

Udalbatzak gehiengoz onartzen du Artzabalgo hilerriaren araubidea eta funtzionamendua ezartzen duen erregelamendua.

13.- HILERRI BERRIA IREKITZEARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Gilen: Pedrok du hitza Debarren Ahotsaren izenean mozioa irakur dezan.

Pedro: Mozio hau aurkeztearen arrazoa da gaia hau gori-gori dagoela ikusten genuela;

me digas que no tiene nada que ver con el reglamento en sí, porque esa no es la vía de la normativa. Antes de votar os leeré el penúltimo párrafo del dictamen de la Comisión: *“Los miembros de la Comisión, por unanimidad, se comprometen a dar el visto bueno a la ordenanza para su aprobación. Miren, de EAJ-PNV, pide que en el osario puedan entrar las cenizas individuales o familiares, individualmente, en sus zonas respectivas; e Isidor de Debarren Ahotsa, que si el osario está en marcha, a ver si a los caseríos de la zona de Mutriku se les permitirá enterrar en el nuevo cementerio”.*

Todo lo mencionado, al igual que el resto de ordenanzas, se actualizará en función de las necesidades que surjan. Es muy importante aprobar este reglamento para poder avanzar con este tema. Continuaremos con las adaptaciones que sean necesarias, y sobre todo el traslado, junto con los problemas que puedan surgir. Estoy de acuerdo, hay que preguntar, pero el traslado es un procedimiento técnico. Está claro cuáles son las posturas.

Votos a favor: 10 (EH Bildu y DA)
Votos en contra: 3 (EAJ-PNV)

El Pleno aprueba por mayoría el Reglamento que regula el régimen y funcionamiento del cementerio de Artzabal.

13.- APROBAR SI PROCEDE, LA MOCIÓN SOBRE LA APERTURA DEL NUEVO CEMENTERIO

Gilen: Tiene la palabra Pedro para que lea la moción en nombre de Debarren Ahotsa.

Pedro: El motivo de presentar esta moción es que veíamos que es un tema que está candente,



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

bakoitzak bere desberdintasunak ditu eta jarrera bat hartu behar genuela.

cada uno tiene sus diferencias y veíamos que teníamos que tomar una postura.

Itziar: Gobernu Batzordean aipatu dugu eta mozioaren zentzuarekin bat egiten dugu. Urte asko daramatzagu prozedura honekin esku artean. Nire ustez, ordezkari guztiok gai honekin bukatzeko gogoarekin gaude. Zentzuarekin ados gaude, baina momentu honetan data zehatza esatea zaila da. Gaur likidazioa eta erregelamendua onartuta pauso bat eman da, eta bere prozedura jarraituko du. Ikusiko dugu jendaurreko fasean alegaziorik dauden; honek ere bere denbora emango du.

Itziar: Lo hemos comentado en la Comisión de Gobierno y nos unimos al sentido de la misma. Llevamos muchos años con este procedimiento entre manos. Pienso que todos los representantes tenemos ganas de acabar con este tema. Compartimos el sentido, pero en este momento es difícil decir una fecha concreta. Hoy tras la aceptación de la liquidación y el reglamento, se ha dado un paso adelante, y continuaremos con el procedimiento. Veremos si en la exposición pública surgen alegaciones; esto también llevará su tiempo.

2. eta 3. puntuarekin ados gaude. Oso gai delikatu da, nahiz eta hori egin behar garrantzitsua iruditzen zaigun, herritarrei horren berri ematea. Konpromisoa har dezakegu, baina ezin dugu data zehatzik eman. EH-Bilduko ordezkariak abstenitu egingo gara mozio horren aurrean, arrazoi zehatz horregatik.

Estamos de acuerdo con los puntos 2 y 3. Es un tema muy delicado y nos parece importante hacérselo saber a la ciudadanía. Podemos comprometernos a cumplirlo, pero no podemos fijar una fecha exacta. Por esta razón en concreto, los representantes de EH Bildu nos abstendremos ante esta moción.

Iñigo: Guk mozioa babestuko dugu; konpromisoa hartzeko garaia dela uste dugu. Badakigu lanean ari zaretela, baina publikoari begira konpromisoa hartu behar dugula uste dugu. Ados gaude egutegi bat ezartzearekin, eta hirugarren puntua oinarrizkoa iruditzen zaigu; jende askorekin egiten dugu topo, eta beren kezka helarazten digute, informazio hori jasotzea oinarrizkoa iruditzen zaigu irtenbideak eman ahal izateko.

Iñigo: Nosotros sí vamos a apoyar la moción; creemos que es tiempo de coger un compromiso. Sabemos que estáis trabajando, pero creemos que debemos coger un compromiso cara al público. Estamos de acuerdo en establecer un calendario, y el tercer punto nos parece básico. Nos estamos encontrando con bastante gente que nos traslada su inquietud, y recoger esa información nos parece básico para poder dar soluciones.

Aldeko bozkek: 7 (EAJ-PNV eta DA)
Abstentzioak: 6 (EH Bildu)

Votos a favor: 7 (EAJ-PNV y DA)
Abstenciones: 6 (EH Bildu)

Udalbatzak gehiengoz onartzen du hilerri berria irekitzeari buruzko mozioa.

El Pleno aprueba por mayoría la moción sobre la apertura del nuevo cementerio.

I. Eranskina

Anexo I



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

Gilen: Honek esan nahi du konpromiso hori hartzera behartuta gaudela, eta orain arte bezala, hitza betetzen saiatuko gara. Nabaritzen dut gure bozeramaileek aipatu dituzten gaiak zailtasunak izango dituela, baina hitza ematen dizuet horretan lan egingo dugula.

Pedro: Gu ere hemen gaude laguntzeko.

14.- MARTXOAK 8ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Itziar: Martxoa iritsi da, eta horrekin, datorren astean, astelehenean, Martxoak 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna da. Asteartean aurkeztu genuen Udalak antolatutako egitaraua, eta gida morea aste honetan etxez-etxe banatuko da.

Egitarau horren lanketa berdintasun batzordean egin da; bestetik, Udal-liburutegiko langileek gida more horren lana egin dute. Berdintasun Batzordearekin elkarlanean.

Talde feministak ere beraien ekintzen berri eman dute; martxoaren 5etik eta 21a bitartean hainbat ekintza egongo dira. Adierazpen instituzionalean aipatzen dugu, baina halere, dei egiten diegu guztiei parte hartzera.

Udalbatzak aho batez onartzen du Martxoak 8ko adierazpen Instituzionala.

II. Eranskina

Gilen: Esto significa que estamos obligados a asumir ese compromiso, y como hasta ahora, intentaremos cumplir con nuestra palabra. Percibo que los temas a los que se ha referido nuestro portavoz van a ser de carácter departamental, pero les doy mi palabra de que vamos a trabajar en ello.

Pedro: Nosotros también estamos para ayudar.

14.- APROBAR, SI PROCEDE, LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 8 DE MARZO

Itziar: Estamos ya en marzo, y con ello, el próximo 8 de marzo es el Día Internacional de las Mujeres. El martes presentamos el programa organizado por el Ayuntamiento, y la guía morada se repartirá en las casas esta semana. Este programa se ha trabajado en la Comisión de Igualdad, y el personal de la biblioteca ha colaborado con la comisión en la elaboración de esta guía morada.

También los grupos feministas han dado a conocer sus acciones: entre el 5 y el 21 de marzo habrá diferentes actividades. Lo mencionamos en la declaración institucional, pero hacemos un llamamiento a todos a participar.

El Pleno aprueba por unanimidad la Declaración Institucional del 8 de marzo.

Anexo II



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

**15.- MINBIZIAREN AURKAKO EGUNA DELA
ETA, EGINDAKO ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO**

Aritz: Otsailaren 4an Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen.

Udalbatzak aho batez onartzen du minbiziaren aurkako eguna dela eta, egindako adierazpen instituzionala.

III. Eranskina

Horrenbestez 20:01etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Jorge González Endemaño
Idazkaria



**15.- APROBAR, SI PROCEDE, LA DECLARACIÓN
INSTITUCIONAL CON EL MOTIVO DE LA
CELEBRACIÓN DEL DÍA MUNDIAL CONTRA EL
CANCER**

Aritz: El 4 de febrero se celebró el Día Internacional contra el Cáncer.

El Pleno aprueba por unanimidad declaración institucional con el motivo de la celebración del día mundial contra el cáncer.

Anexo III

Sin más temas que tratar finaliza el pleno a las 20:01 horas.

Gilen Garcia Boyra
Alkatea





2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

I. ERANSKINA / ANEXO I



MOCIÓN SOBRE LA APERTURA DEL NUEVO CEMENTERIO

La construcción del cementerio fue entregada por la empresa constructora, con el visto bueno del director de obra en verano de 2020.

El 6 de Noviembre del 2020, (han transcurrido cuatro meses) la Consejería de Salud del Gobierno Vasco dio su autorización de uso del cementerio al Ayuntamiento de Deba y ese mismo mes se procedió a la recepción de la obra.

Como consecuencia de la no apertura, los plazos del traslado van a soportar un retraso considerable debido a que transcurrirán varios años hasta el cierre del cementerio actual, lo que influirá directamente en el desarrollo del proyecto de Amillaga.

Han sido varias las ocasiones, la última en el pleno del 28 de enero de 2021, en las que DA se ha dirigido al equipo de gobierno solicitando información de la situación del nuevo cementerio, sin recibir ninguna respuesta concreta hasta el momento.

Debarren Ahotsa, propone que el equipo de gobierno se comprometa para el próximo pleno 25 de marzo:

1. Fijar una fecha concreta para la inauguración y apertura oficial del cementerio.
2. Establecer un calendario/programa sobre la gestión a realizar con el traslado del viejo cementerio, entendiéndolo delicado del tema y que requiere un nivel de gestión cercano.
3. Poner en conocimiento de la ciudadanía de los nuevos pasos a realizar, dada la importancia de este proyecto.

Deba, 1 de marzo 2021



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

II. ERANSKINA / ANEXO II

MARTXOAK 8 – EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

ZAINZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemiaren eta zaintzaren Krisi Globalean

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). Hainbat urtetan euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatzeak aldaketak ekarri ditu legetan, gizartean nahiz kulturaren, eta gizarteak berdintasun-eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Baina emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik.

Hau guztiari bizi dugun krisi sistemikoan gehitu behar zaio, beste krisi batzuekin gurutzatu eta erlazionatzen dena; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizi zaugarria dela, giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren guztiz mendekoa gainera. Ezerk ez du garrantzia handiagoa izan behar bizi zaitezko zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizi.

Martxoaren 8an, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta honen kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura, ...) eta baita etxeetan ere; eta batez ere beraiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazalizioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gaitzargaz gain, eta emakumeen osasunari eta bizikaltateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiarren, eta, neurritz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak eta baita ordaingabeak ere; oso gutxi izaten dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaugarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.



2021SPLE0002

2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

Ondorioz, gizarteak bere aitortza adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekarietateari begiratuz gero. Bada garaia zaintzalan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Horregatik, **Debako Udalak**, bere eskumenen esparruan, honako **konpromisoak** hartzen ditu:

1. 2020an osatutako II. Berdintasun Planean bildutako neurriak urtez urte betetzea.
2. Kolektibo zaugarrienen egoerari eta beharrezanean buruzko azterketa egitea, eta horiei aurre egiteko premiazko neurriak martxan jartzea.
3. COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua txertatzea.
4. Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz.
5. Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerro izateko erabiltzen diren giza-baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak sendotzea eta babestea.

Gainera, herritarrei dei egiten diegu egun honen baitan eragile ezberdinek antolatutako aldarrikapen eta ekintzetan parte hartzera.

Deban, 2021eko martxoaren 4an.



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

3 ERANSKINA / ANEXO 3

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, MINBIZIAREN AURKAKO MUNDUKO EGUNA DELA ETA

Minbizia da mundu mailako arazo sozio sanitariorik garrantzitsuenaren. Bigarren heriotza-kausa da munduan, eta 2030erako kasu berriak % 30 baino gehiago haztea aurreikusten da.

Bi gizonetik bati eta hiru emakumetik bati minbizia diagnostikatuko zaie bizitzan zehar. Kalkuluen arabera, egun, EAEn, 75.000 pertsona baino gehiagok dute minbizia. 2019an bertan, ia 15.000 kasu berri diagnostikatu ziren.

Pandemiak eragindako krisiak areagotu egin du pertsona horien eta beren familien zaugarritasun soziala eta sanitarioa. Kolektiboa bi aldiz da zaugarria, minbiziagatik eta Covid-19gatik. Afekzio berri eta larriak ageri dira. Esate baterako: inpaktu sanitarioak izan dira infektatuei eman behar izan zaien lehenetsuen ondorioz; gaixoen %30ek baino gehiagok osasun mentaleko arazoak eta antsietatea pairatu dute konfinamenduetatik, eta gaixotasunaren ondorioz sortu diren kostu sozio-laboralen % 45 beregain hartu behar izan dute.

Otsailaren 4an Minbiziaren aurkako Munduko Eguna izan dela eta, elkartasuna adierazi nahi diegu kaltetutako pertsonei, eta, era berean, gizarte osoa bizimodu osasungarria izatera animatu nahi dugu; hau da, minbiziaren arrisku-faktore garrantzitsuenak saihestera (tabakoa, alkohola, eguzkiarekiko esposizio desegokia, obesitatea, sedentarietatea, eta abar); bizitza aktiboaren eta elikadura osasungarriaren aldeko apustua egitera; eta koloneko, bularreko eta zerbidoetako baheketen hitzorduetara joatera.

Uste dugu minbizia ikertzeko, sendatzeko eta haren ondorioak zein tratamenduak hobetzeko behar beste baliabide behar direla. Halaber, uste dugu zaintzak sustatu behar direla, eta minbizia duten pertsonen eta haien familien beren eskubideak bermatzeko behar diren bitartekoak jaso behar dituztela.

Horiek horrela, minbizia duten pazienteen eta haien senideen alde lan egiten duten elkarten eginkizun sozial eta sanitarioaren balioa aitortu nahi dugu, eta nabarmendu nahi du gu erakunde publikoek babestu, bultzatu eta egituratu behar dutela boluntarioek eta gizarteak berak elkarte horien bidez egiten duten ahalegin sozial eta ekonomikoa.

Deban, 2021eko martxoaren 4an.



2021SPLE0002
2.BILERA:EZOHIKOA 2021/03/04

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DE LA CELEBRACIÓN DEL DÍA MUNDIAL CONTRA EL CÁNCER

El cáncer se erige como el principal problema sociosanitario a nivel mundial. Es la segunda causa de muerte a nivel mundial y se proyecta un crecimiento de más del 30% de nuevos casos para el 2030.

1 de cada 2 hombres y 1 de cada 3 mujeres serán diagnosticados de cáncer a lo largo de su vida. Se calcula que esta enfermedad afecta más de 75.000 personas en la CAV. Solamente en el año 2019, se diagnosticaron casi 15.000 nuevos casos.

La crisis provocada por la pandemia no ha hecho sino agravar la situación de fragilidad social y sanitaria de las personas con cáncer y de sus familias, como colectivo doblemente vulnerable por el cáncer y por el Covid-19. Aparecen nuevas y severas afecciones, como el impacto sanitario derivado de la atención preferente a los infectados, problemas de salud mental y ansiedad por el confinamiento que sufren más de un 30% de los enfermos, así como la necesidad de asumir un 45% de los costes económicos-laborales derivados de la enfermedad.

Con motivo del día mundial contra el cáncer, el pasado 4 de febrero, manifestamos nuestra solidaridad con las personas afectadas, al tiempo que animamos a la sociedad a seguir formas de vida saludables evitando los más importantes factores de riesgo del cáncer; como el tabaco, alcohol, la exposición inadecuada al sol, la obesidad, el sedentarismo, etc. apostando por una vida activa y una alimentación saludable, así como acudiendo a las citas de cribados de colon, mama y cérvix que pueden salvarnos la vida.

Abogamos para que se doten los medios necesarios para la investigación, para curar o cronificar la enfermedad y mejorar los efectos derivados de ella y los tratamientos. Además, potenciar los cuidados, proporcionando los medios necesarios para garantizar así los derechos de las personas con cáncer y sus familias.

En este sentido, queremos reconocer el importante papel social y sanitario de las Asociaciones que trabajan por y para los pacientes de cáncer y sus familiares, destacando la necesidad de que las instituciones públicas vertebren, impulsen y apoyen decididamente el esfuerzo social y económico realizado por la sociedad y el voluntariado a través de estas asociaciones.

En Deba, a 4 de marzo de 2021.